



**2010EKO EKAINAREN 24KO**  
**OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamarreko ekainaren hogeita lauan, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albisu Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, M<sup>a</sup> Lourdes Garmendia Guerra, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Ángel Hernández Marzal zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak, bilkurari hasiera eman ondoren, esaten du eguneko gai zerrendan ez dagoen puntu bat, presazko izaeraz sartzeari proposatzen duela. Puntua Lazkao Lantzen, S.A.k 1 Sektoreko PR-5ean egindako etxebizitzaren ingurukoa da, honek udalaren alde ezartzen duen erosteko lehentasunezko eta atzera egite eskubidea onartzeari buruzkoa.

Osoko Bilkurak ontzat ematen du puntua bilkurako gai-zerrendan sartzeari.

Alkateak esaten du puntu horrekin berakin hasiko dela bilkura.

**I.- LAZKAO LANTZEN, S.A.K 1 SEKTOREKO PR-5 LURSAILEAN EGINDAKO ETXEBIZITZEN EROSTOKO LEHENTASUN ETA ATZERA EGITE ESKUBIDEA.-**

Lazkao Lantzen, S.A.ren Administrazio Kontseiluak, gaurko egunegaz egindako bilkuran, Lazkaoko 1 Sektoreko PR-5ean eraiki dituen 23 tasatutako etxebizitza eta haurerik gabeko garajeentzat erosketako lehentasunezko eta atzera egiteko eskubidea ezarri du hamar urterako elkarrearen alde eta eskubidea Lazkaoko Udalaren alde izango litzateke elkarreka desegingo balitz.

Hau honela izanik, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkao Lantzen, S.A.k, Lazkaoko 1 Sektoreko PR-5ean eraiki dituen tasatutako etxebizitza eta garajeentzat Lazkaoko Udalaren alde onartutako erosketako lehentasunezko eta atzera egiteko eskubidea onartzea.

2.- Aurreko akordioa eskritura publikoan jasotzeko udal idazkaria den Iñaki Eskisabel Zurututza ahalmentzea.



## II.- AURREKO AKTA.-

Jarraian, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2010eko maiatzaren 27an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

## III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatezako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

## IV.- SANTA MAGDALENAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIA.-

Udal honek, 2010eko maiatzaren 12ko alkatezaren ebazpen bidez, AA.SS.etako 15 H.J.A.ko -"Santa Magdalena-Mikelar-San Jose"- Hiri Antolamenduko Plan Berezia hasierako izaeraz onartu zuen.

Dokumentua jendaurrean erakusgai eduki da 20 egunetan, iragarkiak 2010eko maiatzaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2010eko maiatzaren 18ko Berria eta Noticias de Gipuzkoa egunkarietan argitaratuz.

Jendaurrean egon zen denboraldian ez da inolako alegaziorik jaso.

Guzti honen aurrean, Osoko Bilkurak, Hirigintza Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioa hartzen du: AA.SS.etako 15 H.J.A.ko - "Santa Magdalena-Mikelar-San Jose" - Plan Berezia behin betikoz onartzea.

## V.- KIROLDEGIAREN BIRMOLDAKETAREN 4. FASEAREN PROIEKTUAREN ONARPENA.-

Jarraian Osoko Bilkurara aurkezten da bere onarpenerako LKS Ingenieria, S. Coop. eko Javier de la Fuente eta Eva Caceres arkitektoek idazitako "Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Handitze Lana, 4. fasea"ri buruz Oinarrizko Proiektua izena darman dokumentua.

Alkateak esaten du proposamenak bi direla; bat oinarrizko proiektu hau onartu eta bi, ondoren etorriko den egikaritze proiektuaren eta kontratazio espedientearen onarpena eta obren esleipena egiteko ahalmena alkatearengan eskuordetzea direla.

Gaia aztertu ondoren eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- "Joxemiel Barandiaran Udal Kiroldegiaren Handitze Lana, 4. fasea"ren Oinarrizko Proiektua onartzea.

2.- Lan hauen egikaritze proiektua, kontratazio espedientearen onarpena eta lanen esleipena egiteko ahalmena alkatearengan eskuordetzea.



VI.- PLANEAMENDUKO 19. H.J.A.KO -LARREATEGI- LURSAIL BAT GOIERRI BEHEKO INDUSTRIALDEA, S.A.RI ZUZENEAN BESTERENTZEKO HITZARMENA.-

Lazkaoko Udalak hirigintza hitzarmen bat izenpetuta dauka Goierri Beheko Industrialdearekin Lazkaoko Arau Subsidiarioen 21 H.J.A.ren -"Kanpandegi-Amebi-Meandroa"- hirigintza garapenerako.

Lazkaoko Udalak, hitzarmen horretan onartzera behartzen zen 21 H.J.A.ko Plan Partziala 2009ko urriaren 29an onartu zuen.

Bestalde, Goierri Beheko Industrialdea, S.A.k, hitzarmen horretan hitzartutakoa bezte baita ere, 21 H.J.A. guneko ia lur guztiak erosi ditu eta era berean Plan Partzialak ordenamenduz kanpo uzten dituen hiru baserrietatik 2 erosi ditu, eta baserri hauetako jabeek ez dute errealojorik eskatu.

Baita ere Goierri Beheko Industrialdea, S.A. adostasunera iritsi da hirugarren baserriko jabeekin, baserria eta honen lurak erosteko eta akordio honen barruan Goierri Beheko Industrialdea, S.A.k etxebizitza bat ematera behartzen da beraien errealojorako.

Lazkaoko Udalak errealojo hau egiteko lursaila izateko aukera izango du, 19 H.J.A.ko birpartzelazio proiektuaren bidez esleitua izaten zaionean.

Kontutan izanda Lazkaoko Udala Goierri Beheko Industrialdea, S.A.ren partaidea dela eta horren ondorioz eta Euskadiko Hirigintza eta Lurzorua arautzen duen ekainaren 30eko 2/2006 Legeak bere 117. artikuluan xedatzen duena kontutan izanda, ente instrumental izaera duela eta beraz kasu horretan Udal Lurzoru Ondarearen ondasun baten besterentze zuzena egin daitekela.

Lursail horren balioa EHUN ETA HOGEI MILA EHUN ETA HIRUROGEITA BAT EUROkoa (120.161 €) da horretarako egin den txosten teknikoaren arabera.

Guzti hau honela eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Lazkaoko Udala eta Goierri Beheko Industrialdea, S.A.ren arteko hitzarmen hau, bere espedientearen dagoena, onartzea.

2.- Hitzarmen hau eta bere helburua betetzeko beharrezko liratekeen gainontzeko dokumentuak Lazkaoko Udalaren izenean izenpetu ditzan alkatea ahalmentzea.

VII.- UDAL INBENTARIOAREN ZUZENKETAREN ONARPENA.-

Udal Korporazioen Ondasunen Arautegiaren 33 eta 34. artikulua diotena ikusita eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenez, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordio hau hartzen du:

2009ko abenduaren 31 datara udal honetako ondasun eta eskubideen inbentarioaren zuzenketa, bere zenbateko garbia guztira HOGETA HAMABI MILIOI SEIEHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA ZAZPIEHUN ETA BERROGEITA BI EURO ETA LAUROGEI-



TA HAMABOST ZENTIMOtakoa (32.678.742,95 €) dena, onartzea. Inbentarioaren zuzenketa honek azken zuzenketa egin zenetik 2009ko abenduaren 31 arte izandako gehitze, kentze eta izandako aldaketa guztiak jasotzen ditu.

#### VIII.- SANTA MAGDALENAKO GARAJEEN LURZORUA LAZKAO LANTZEN, S.A.RI BESTERENTZEA.

Santa Madalena Plazako lur azpiko garajeen eraikuntza Lazkao Lantzen, S.A.k egin du. Hasiera bateko asmoa garajeak kontzesio administratiboan urte batzuetarako ematea baldin bazen ere, azkenean garajeak saltzea erabaki da. Horretarako eta lur hori udal jabetzakoa dela kontutan izanda, lehenengo Lazkaoko Udalak lur hori Lazkao Lantzen, S.A.ri saltzea planteatzen da, gero honek garajeen salmenta egin ahal izateko.

Salmenta prezioa, gaiaren inguruan udal teknikariek egindako txostenaren arabera berrogeita zortzi mila (48.000 €) da.

Guzti honen aurrean eta gaia aztertu ondoren, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide gutien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Santa Madalena Plazako lur azpiko garajeen orubea Lazkaoko Lantzen, S.A.ri besterentzea berrogeita zortzi mila euroko (48.000 €) prezioan.
- 2.- Alkatea ahalmentzea aurreko akordioa gauzatzeko beharrezko dokumentuak izenpetu ditzan.

#### IX.- ZARATEN ORDENANTZA.-

Zaratek sortzen dituzten arazoan aurrean geroz eta sentsibilizatuago dago gizartea eta halaber geroz eta gehiago dira zaraten inguruko salaketak. Honen aurrean egoitza gunean jarduerak sortutako zaraten aurrean pertsonak babesteko udal ordenantza bat egin da eta osoko bilkura honen aurrera aurkeztu da bere onarpenerako.

Ordenantza hau aztertu ondoren eta Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako Batzordea Informatzailearen proposamenez, Udal Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

- 1.- Egoitza guneetan jardueran aritzeak sortutako zaraten aurrean pertsonak babesteko udal ordenantza, bere espedientean aurkitzen dena, hasierako izaeraz onartzea.
- 2.- Hasierako onarpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragartzea, espedientea jendaurrean 30 egunetako denboraldian jarritz.
- 3.- Jendaurrean dagoen denboraldian inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, hasierako onarpena behin betikoa bihurtuko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

#### X.- 9.1 E.U.KO -ERDIGUNEA- BORONDATEZKO BIRPARTZELAZIO PROIEKTUA.-



Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9.1 Egikaritze Unitateko borondatezko birpartzelazioa garatzea planteatzen da bertako jabetzaren partaidetza handiena dutenen aldetik.

Lazkaoko Udala, gune horretan barneratzen den lursail baten jabea da eta beraz borondatezko birpartzelazioa lursail guztien jabeen izenpetutako eskritura bidez aurkeztu behar denez, Lazkaoko Udalak ere borondatezko birpartzelazio eskritura hori izenpetu egin beharko du.

Gune horretan barneratzen den udal ondasuna honako hau da:

"Zufiaurre Txikia" izeneko etxea, Lazkaoko Kontzejuaren Elosegi Kaleko bederatzi zenbakiaren izendatua; area bat eta hirurogeita hamalau zentia eta berrogeita hamar dezimetro karratuko azalera du eta muga egiten du ifarretik edo sartzerakoan eskubitik, Zufiaurre erdikoaren baratza; Hego edo ezkerretik, Sustraitzko bidearekin; Ekialde edo aurrekalde-tik, Zufiaurre etxearen sarrerarekin, eta Mendebalde edo atzekaldek, Valmedianoko Markesaren jabetzarekin; etxe honen eta Erdiko Zufiaurre etxearen tartean bietarako sarrera den eta biena den espazioa dago eta hirurogeita hiru zetiarea eta hogeitazero dezimetro karratu neurtzen du."

Inskripzioa.- 1658 Tomoa, Lazkaoko 78 Liburua, 7 Folioa, 59-laukoztua-n Finka.

Katastro erreferentzia: Zbkia. 2119003; zenbaki finkoa: 60918 C.

Titulua: Angel Zabalegi Vitoria eta Rufina-Esther Labarta Tanco senar-emazteei erostia, 1993ko martxoaren 23an Ordiziako den Ignacio Pagola Villar notarioaren aurrean egindako eskrituran.

Ondasun honetatik borondatezko birpartzelazio proiektuan barneratzen den zatia honako dau da:

Hogeita hamahiru metro eta hirurogeita zazpi dezimetro karratu (33,67 m<sup>2</sup>) ondare izaerakoak eta hirurogeita lau metro eta berrogei dezimetro karratu (64,40 m<sup>2</sup>) herri jabarikoak.

Udalaren jabetzakoa den lursaila eta hirigintzako %15eko zesia dirutan bihurtuko dela eta guztiarengatik Lazkaoko Udalak hirurogeita bi mila (62.000 €) euroko balioa eman zaion 60 metro karratuko merkataritza lokala jasoko duela adostu da.

Hau honela, eta Hirigintza, obra eta Zerbitzuetako Batzorde Informatzailearen proposamenaren aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, honako akordioak hartzen ditu:

1.- Akordio honen aurrekarietan azaldu diren xehetasunak jasotzen dituen Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9.1 Egikaritze Unitateko borondatezko birpartzelazio eskritura onartzea eta izenpetzea.

2.- Alkatea ahalmentzea Lazkaoko Udalaren izenean eskritura hau izenpetu dezan.

Une honetan Felix Urkola Iriarte zinegotzia bertaratu da.



## XI.- UDALBILTZAREN AURKAKO EPAIKETAREN INGURUKO MOZIOA.-

Moziok honela dio:

“UDALBILTZA, Euskal Herriko Udalen eta Udal Hautetsien Biltzarra”, nazio-instituzioa, zazpi lurraldeetako ia 1.800 udal hautetsik sortu zuten, 1.999ko irailaren 18an Bilboko Euskalduna Jauregian. Honako printzipio eta helburuekin sortu zuten:

- 1.- Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzea.
- 2.- Euskal Herriaren egituraketa politikoa eraikitzen laguntzea, lurraldetasuna lekuko izanik eta zazpi euskal lurraldeetako udal ordezkariak esparru erkidean batzeko asmoz.
- 3.- Euskal Herriaren nazio eraikuntza bultzatzea, prozesu dinamiko eta demokratikotzat harturik eta euskal herritar guztien erabakimen eta parte hartze askean oinarriturik.
- 4.- Herrialde guztietako udalerrien arteko harremanak eraikitzen laguntzea, hizkuntzaren, kulturaren, kirolaren, ingurumenaren, lurralde antolaketaren, ekonomiaren garapenaren eta ongizatearen alorrean eta beste esparru batzuetan, udal ordezkarien ekintza bateratuei bide emanez.
- 5.- Nazioartean Euskal Herria nazio berezko eta desberdindua dela adieraztea, baita Euskal Herriak nazio gisa jardun nahi duela ere Europako etorkizuneko egituraketan eta erakundeetan.

Helburu hauek gauzatze aldera hamaika ekimen bultzatu, sendotu, babestu eta aurrera atera izan ditu UDALBILTZAK azkeneko ia hamaika urte hauetan.

Oztopoz jositako ibilbidea izan du. Horien artean, nabarmena 2003ko udaberrian Madrileko Auzitegi Nazionalak aginduta erakunde nazionalaren aurkako polizia operazioa dugu.

Operazio honen ondorioz UDALBILTZAko hainbat hautetsi eta langile atxilotu, bulego publikoak itxi, udaletxeak erregistratu, materiala eraman, Zuberoan hainbat enpresa egitasmo laguntzeko herritarrek emandako dirua konfiskatu eta UDALBILTZAri suspentsioa ezarri zioten.

Operazio honen aurrean, udal hautetsi, ordezkari politiko, sindikal, kultural eta sozial ugari eta anitzek eta milaka eta milaka herritarrek eraso salatu zuten Bilboko kaleetan, “Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari” lelopean.

Orain, zazpi urte beranduago, UDALBILTZAren aurkako epaiketa dator. Fiskalaren zein herri-akusazioaren eskaerak ezagutu ditugu, hautetsi eta langile izan diren 22 pertsonentzako 10 eta 23 urte bitarteko espetxe zigorrak hain zuzen. Nabarmenezkoa da UDALBILTZA erakundearen beraren behin betiko ilegalizazioa eskatzen dela.

Honen aurrean, Udalbatzarrari ondorengoa eztabaidatzeko eta bere kasuan onartzeko proposatzen zaio:



- 1.- Aldarrikatzea 1999ko irailean Euskalduna jauregian egindako batzar sortzailean onartu ziren bost helburuen alde lan egitea beharrezkoa eta zilegi dela eta ezin dela delitutzat jo. Helburu eta lan-ildo horietan aurrera egiteagatik hautetsi eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aurkako ekimena da, are gehiago kontuan hartuta epaituak sufragio unibertsalez aukeratutako herri-ordezkariek direla.
- 2.- Udalaren iritziz, "Guztia ETA da" kontzeptua erabiliz, pertsonen eta erakundeen aurkako egozpen mugagabeetara iritsi daiteke. Euskal lurraldeen erakundetzea eta eraikuntza Nazionala bultzatzea, edo euskararen alde lan egitea, herritar eta euskal kargu hautetsi askoren iritzia eta konpromezua da. Guardia Zibilak bere txostenetan, ETAk bezala pentsatzen dutela eta hori dela eta denak ETAko kideak direla adieraztea, juridikoki eta politikoki astakeria da.
- 3.- Konpromisoa hartzea, edozein arlo instituzionaletan, demokratikoki aukeratutako ordezkariak Euskal Herriko lurralde eta eremu administratibo guztietako instituzioak sortu, bultzatu, garatu eta finantzatzeko duten eskubidea errespetatzeko.
- 4.- Udalbiltza eta bertako hautetsi (bereziki Lazkaoko Udal ordezkaria izan zen Urko Irastorza) eta langile ohien aurka Madrileko Auzitegi Nazionalan eramaten den auzibidea irmoki salatzea eta Estatuko Gobernuari eskatzea Estatuko fiskal nagusiak gaur egun mantentzen duen akusazio publikoa erretira dezala.
- 5.- Epaiketa gertatu bitartean, uztailaren 15ean, Udaletxe aurrean 19:00etan elkarretartzera deitzen ditugu herritarrak, era isilean elkartasuna adierazteko."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioaren aurka bozkatuko dutela.

Gala bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, Alternatiba), aurkako 3 botu (PSE-EE, PP) eta abstentzio batez (Lurdes Garmendia) mozioa onartu egiten du.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak hitzegiteko baimena eman ondoren, Joseba Hernandezek esaten du pozten direla udal honek mozio hau onartu izanarekin eta hementxo hautetsien ekainaren 30ean udaletxean bertan egingo den ekintzetan parte hartzeko gonbidapena luzatzen dietela eta azken hiru legegintzaldietan hautetsiak izan direnei gonbidapen hau luzatuko balitzaie eskertuko luketela.

## XII.- OSAKIDETZAKO ANBULATEGIETAKO ORDUTEGIEN ALDAKETAREN INGURUKO MOZIOA.-

Mozioak honela dio:

"Komunikabideen bidez jakin da OSAKIDETZAK duen asmoa asteburuetan Euskadiko 104 anbulatorietatik 46 ixteko asmoa. Anbulatorio horien artean Lazkaokoa dago.

Horrek egonezina sortu du kaltetutako herritarren, langileen eta udalen artean.

Eusko Jaurlaritzak asteburuetako lehen arretaren berrantolamenduari ekin dio erlazionatutako eragileak kontuan hartu gabe eta datu edo proposamen alternatiborik eman gabe.

Hori dela eta, Lazkaoko Udalak ondoko adosten du:

- 1.- Egonezin larria agertzea OSAKIDETZAK larunbatetan Lazkaoko anbulatorioa ixteagatik, eta Eusko Jaurlaritzak asteburuetakoa Lehen Mailako Berrantolamendu Plana jakinarazten ari den eta bideratzen ari den moduagatik.
- 2.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea asteburuetakoa Lehen Mailako Berrantolamendu Plana birformula dezala, eta prozesu garden eta partehartzailea ireki dezala, kaltetutako eragile guztiekin, Euskadiko udal guztiei -baita Lazkaori ere- sartzeko erraza eta kalitatezkoa den asteburuetakoa Lehen Mailako zerbitzua jartzeko."

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du mozioaren aurka bozkatuko dutela eta hau ulertzen dutelako Eusko Jaurlaritzak erabaki hau guztiok ezagutzen dugun ekonomi egoera jakin batean hartu duela eta azken finean balio duena ez dela ez irekita dauden ambulategien kopurua ezta ere beraien dispersioa geografia eremuan baizik eta udalerrri guztietara osasun harrera iristea.

Saldaña zinegotziak (Alternatiba) esaten du kasualitatea izango dela baina PSOEk agintzen duen udalerrietako inon ez dela itxierarik emango.

Serna zinegotziak erantzuten dio esanez udalerrien zentsuak begiratu behar direla ze aipatzen diren horiek udalerrri handiak eta bailarako buru direla.

Estensoro zinegotziak (EAJ) esaten du gai honen inguruan eta Saldaña zinegotziak salatu duenaren harira, datuak dituztela eta datu horien arabera, adibidez Hernani bezalako herri batean, zerbitzua Lasarten baino gehiago erabiltzen den herria izanik, ambulategiak itxi egin dituztela. Esaten du baita ere, egiteaz gain egite horren prozedurari ere begiratu behar zaiola eta udalekin ez dela batere hitzegin baizik eta itxi egingo dira esan zaie eta kitto.

Serna zinegotziak esaten du berak daturik ez duela eta ez dakiela Hernani eta Lasarteren arteko hori nola den. Estensoro zinegotziak esan duen beste gauzari buruz esaten du espero duela jarduteko prozedura aldatuko dela etorkizunean eta alde hortatik ona izan dela PSOE Eusko Gobernuan sartu izana, eta orain arte egin dena lehengo kontseilartzaren prozesuek zeuzkaten eskemekin jarraituz egin delako izan dela.

Estensorok erantzuten dio eman duen esplikazioarekin nolabait ere oposiziokoei eta zehazkiago EAJkoei tontoak hotsegiten ari zaiela.

Jendartetik hitza eskatu eta alkateak hitzegiteko baimena eman ondoren Joseba Hernandezek esaten du ambulategi ixten hauekin berriro ere arlo soziala murriztera goazela.

Gaia bozketan jarri eta Osoko Bilkurak, aldeko 7 botu (EAJ, Alternatiba), aurkako 2 botu (PSE-EE) eta 2 abstentzioz (PP eta Lurdes Garmendia) mozioa onartu egiten du.

### XIII.- BILERAREN AMAIERA.-



LAZKAOKO UDALA



AYUNTAMIENTO DE LAZKAO

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak hogei gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of several loops and a long horizontal stroke.

